

ZARAITZUKO EUSKARAREN LEKUKOAK

Jose Mari SATRUSTEGI

Aita Villasanteri zor diot Nafarroako Olite edo Erriberrin jasotako eskuizkribu batzuen lehen berria. Villasantek berak helarazi zizkidan gero, 1988ko uztailean, euskarazkoen fotokopiak. Zer aproposago, esan diot neure buruari, emaitza haren lehen azalpen bat baino Villasanteri orain eskaintzeko?

Behin eta berriz aipatu izan dizkit berak paper horiek eta, denen azterketa bideratzen ari naizenez, lekukotasun zabalagoa aurkeztea izango zen nere gogoan; baina, omenezko liburu honetarako lanei ezarri zaizkien oinarrizko baldintzek mugatzen dute neurria. Bakoitzari berea, dio esaera zaharrak, eta Villasanteri orri hauekin nere esker ona.

Izkribu hauen nundik norako ibilera ez da ulerterreza. Erriberriko komentuko Lukas Arizeta frantziskotarrak jaso zituen bertako botikarioaren etxean. Izatez Lizarrakoa da jaun hau, eta Abartzuzan apaiz izandako senditar baten bildumako izkribuak direla, aditzera eman du.

Lukas Arizetak emandako berriekin jarraituz, argibide hauek ezagutzen ditugu: «Creo que es un cura de principios del siglo XIX. En medio había dos folletos impresos sobre diezmos, etc., de 1814 y 1816. No sabe el farmacéutico cómo se llamaba».

Arizetaren oharra bat dator bildumako erdal predikuekin, espreski adierazten baidute bizpahiru aldiz hemeretzigarren mendeko data.

Egileari dagokionez, ezer gutxi dakigu. Abartzuzako parrokiaren baziren zazpi elizgizon XIX. mendearen hasieran: Bikarioa eta sei benefiziari.¹ Parrokiako bikarioei dagokienez, Lizarrako Andres Velaz (1778-1860) izan zen berrogeita lau urtez, 1816tik 1860ra, herriko apaiz. Honen aurretik Ignazio Echauri arduratu zen parrokiaren 1804etik 1816ra bitartean; eta mende hasieran Roque Bearin, 1804ean kargua utzi eta bertako benefiziari egin zuten arte.²

¹ *Diccionario Geográfico-Histórico del País Vasco* (1802)

² *Arch. Diocesano de Pamplona*. (427,37); *Libro de Títulos*. 30 fol. 384; 20 fol. 276 v.; 25 fol. 179 v.

Ezer gutxi argitu daiteke, beraz, euskal izkribuen egileaz ildo honetatik. Bil-dumaren jabea Abartzuzan apaiz egondakoren bat zela esateak, bestalde, ez luke inola ere berak idatziak zirenik segurtatuko; biltzaile ala beste norbaitek bilduta-koen zaintzaile izan zitekeen. Hori da hain zuzen, itxura guzieren arabera, bildu-maren azken jabeak egin zuena: bildu eta zaindu.

Grafiari dagokionez, esku askoren idazkera azaltzen da erdarazko orrietan. Izen zenbait ere agertzen da eta toki askotan emandako hitzaldiak dira. Fr. Juan de Cassillas da prediku baten egilea, Eusebio Fantova «presbítero residente en la villa de Alcabon», dio beste batek. Gabonetako sermoi bat «a la comunidad de Alcántara» zuzendua izan zela, esaten da, eta italiaraz egindako bertsoekin amaitua da. «Hoja de proclamas de la villa de Alcobar», dio beste orri batek. Iruñean, San Saturnino elizan emandako 1814eko sermoi bat ere badago.

Izkribu gehienak, hala ere, inolako argibiderik gabe daude. Euskarazkoak egile bakar batenak dira eta erdaraz nahiz euskaraz errepikatzen ditu batzutan gai berdinak.

Ez da erraz ulertzen nundik nora ibiliak diren hainbat iturritako orri hauek Abartzuzako apaizaren eskutara iritsi arte.

Bilduma honetan behin eta berriz aipu den Fantova apaizak bazukeen Abartzuzako bikarioarekin zerikusirik. Sermoi amaiera dakarren papertxo batek honela dio, hitzez-hitz, beste alderdian: *Se intenta pretender de la Vicaría de Toledo un Despacho de dispensa de proclamas, y comisión al Presbítero D. Luis Velez para que asista...* Amai gabeko esapide horren azpian, lumadunaren jolasgarri edo, zazpi edo zortzi aldiz idatzirik dator Fantova izena. Abartzuzako *Velaz* eta Toledoko eskarian azaltzen den *Velez* abizen bera bezala har badaitezke, familia-koak izan zitezkeen Andres eta Luis apaiz biak.

Eskuizkribuak

Sei dira euskaraz idatzitako sermoiak. 150 x 218 mm. neurriko orriak dira, letra xehearekin idatzirik daude eta, esan bezala, idazle batenak dira denak. Gaiak hauek dira:

1) *Erunt signa in sole* (Lc. c. 27). Abenduaren lehen igandeko predikua. Sei orrialde pasatxo ditu.

2) *Ductus est Jesus in desertum* (Mat. c. 4). Garizumako 1.igandea. Erdaraz lehen parteak, euskaraz jarraitzeko gero. Lau orrialde euskaraz idatzitakoak.

3) *Exemplum enim dedi vobis* (Jn. c. 3). Ostegun Sanduko hitzaldia. «Sermon de Mandato», dio berak. Sei orrialde, Erdaraz jarraitzen du gero.

4) *Elisabeth autem* (Lc. 1, 57). Juan Bataiatzailearen jaiotzaz sermoi laburra. Hiru orrialde.

5) *Intravit Jesus in quodam Castellum* (lc. 10). Ama Birjinaren zerura igotzeaz. Erdaraz hasten da eta gero hiru orrialde ditu euskaraz.

6) *Erat Jesus ejiciens demonim* (Lc. 11). Garizumako 3.igandekoa. Hiru orrialde.

Lanaren mugak kontutan hartuz lehenengoa bakarrik plazaratzen da une honetan.

Euskalkia

Euskal izkribu hauen mintzaira ez da goi-nafar-hegoaldekoa, Zaraitzukoa baizik. Hona hemen zenbait adibide:

1) Hasierako H-dun hitzen gogordura:

Erakusleak. «Mundu *contan* dagoño» (1); «bi Evangelista *coec* coin baidira» (40); «arroitu terrible *curac*» (40); «gauza *coc*» (66); *contaco* (49).

CALA. «*cala bada*» (31).

CAIN. «*cain* dela veloz nola..» (4); «*cain* dela zaluia nola..» (6)

CAINBERTCE. «*cainbertce* laister» (7); «*cain bertze* agravio» (49)

2) *-ala* adlatiboa. «*Instantetic instanteala*» (60); «ellegatcen direnac *confesarioala*» (89); «gure vicico azquen *momentoalaño*» (136); «azquen *orduala*» (99); «erauguicen baitaucu *memoriala*» (16)

3) *-ara* izen bukaera. «*Amenazara* ecic castigoa» (26); «juicioaren *memoriarra*» (81); «quenduz bere honra eta *famara*» (88); «Adanen *calaberara*» (75).

4) *Sinkopa*. Ugariak dira honelako laburdurak:

a) Aditza.

«Nora juaten *zra?*» (8); «zoin *baitra*» (41); «ez daquicie sortu *grela?*» (54); *trastormatric* (40); *gabetric* (40); «icara eta pabore handi batez *betric*» (52); «curucea *fijatric*» (76); «hobequi *grabatric*» (67); «juaten cela *juzgatric izatra*» (122); *emandroquenari* (19); «*galdren* ciela corpuzac dituen indarrac» (60).

b) Hitzak.

«Munduan zagon *debran*» (69); «munduan vici izan guinen *tembran*» (114) (71); «Jaun divino conen *oñetra*» (141); *oñetara* (86).

5) *-eer* datibo plurala. «Munduco *habitanteer*» (43); «vere *semeer*» (77); «on eta *gaistoer*» (104).

Ortografia

Mitxelena zenaren omenez neuk argitaratutako zaraitzuar testuetan ez bezala,³ *b* letraren erabilpena nagusitzen da izkribu hauetan. Adibidez:

³ J. M. SATRUSTEGUI, «Textos salacencos del año 1780», *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*, Vitoria 1985, pp. 1.023-1.043. *Euskal Testu Zaharrak I*, Iruñea 1987, pp. 160-167.

Hitzak. «Herri contacto» (138). *Hezurrak* (75;77). *Hilarguia* (35). *Obatcea* (60). *Vihotz* (146). Maileguetan jatorrizko idazkera zaintzen du: *Deshonesto* (91). *Habitanter* (43). *Heregiak* (104). *Honra* (88). *Humildadearequin* (19;142).

Aditzak. *Hil* (54), *hilcea* (65), «*hilceco punduan*» (61), *hilcecoz* (54), *hilceala* (11), baina behin *ilceala* (2). *Ihetsi* (09). «*Nahi* citut (145;146). *Orhoicitengatic hilceaz* (79).

Izenlaguntzaile nahiz aditz laguntzaile eta abar. *Handi* (43;52). Patriarca *handi harc* (78), baina «*confianza andi andiarequin*» (86). *Harc* (103;104). *Ihorc* ere (134). *Ehun* urte (27). *Lehenic* (27;33), *lehenago* (34); baina, *leenic* (106), «e-gun cura beño *leen*» (96). «*Arca hura*» (30), «*suerte triste hura*» (131); baina besteetan *cura*. *Mementohoro* (99). *Horay* (35). *Hobequi* (67).

Nabarmena da frikari eta afrikatuen arteko nahasmena: Ainguiruaren izez (20); viviente *guziac* (106), bizi *gutziendaco* (104); *erauguicen* baitaucu (16), *corpucetic separacen* denean (13); *beaz* bat (24), *voza* bat (21). Grafiari dagokionez aldakortasuna da nagusi: ez *duçu* (1), erraten *ditçu* (4), *manatcen* (45), *deitcen ditzu* (45); *guciac* (87), *guziac* (87), *gutziendaco* (104); *lotsacen ditzu* (47), *goratçen ditçu* (25); *separacen* (13), *manatcen* (23). Maileguak jatorrizko grafian emanak dira: *gracia divinoaren auxilioac* (18), eta *presencia* (53).

Bustiduraren lekukoak badaude: mundu contan *dagoño* (1), mundu contan *gaudeño* (128); *beño* lehenago guerla (34), gauza cau *beño* ciertoagoric (155); azquen *momentoalaño* (136); Jaun divino conen *oñetra* (141). Erdal hitzak, noski, dauden daudenean uzten ditu: *señale* (39;99), *engañoac* (115). *Allega* guiten gure confesorearen oñetara (86). Denbora berean, *zoinac* (1) ere agertzen da; *zoinec* (59).

Morfologia

-NT/ND bikoiztasuna ikusten da: *pensamentu* (95,115) eta *momentoalaño* (153), baina «zure elege *sanduco manamenduac* (135); *comendu* (133); *hilceco punduan* (61)

Hitz hasierako b/p letra biak aurki daitezke: *becatu* (87,115). *becatariac* (53) baina «*pecatu mortal* bat» (67). *Barcamendua* (142).

G/K letren kasuan gogordura nagusiten da: *corpucetic* (13), *corpuzac* (60), Adanen *corpuzza* (71), *corpuz* (102); *castigoac* (46).

Aditza

Adibide batzuk bakarrik emango ditugu: causatcen *diacocie* (59), añadicen *dicie* (41), nai *bacie* (56), manatcen *citie* confesa *citiela* (6), icusten *cie* (63), *baicerradie* (61), aparta *citeye* (93), *bearditçut* gracia divinoaren auxilioac (17), erran *zazeela* galdeguiten *çacoien guzier* (28).

Izanen zerela (sic) (34), *ibilien diela* (40), *solo erranen diabezut* (95), *galdeguinen diadacie* (94). *Emandroquenari* (19).

Galderen tankeraz jabetzeko adibide hauek balia daitezke: eguiten *dugua* cala? (87), ez *daquicie* hil bear *ciela*? (54), *beardugua* esperatu azquen orduala? (99), *daucagua* acaso vicia erosiric? (101), ez *dugua* beldurrik izanen? (124), nora *zoaza*? (11).

Erdal esaerak

Erdarakada ugari bada lerro hauetan, hala nola: *acaso* (95), *por desgracia* (88), *por ventura* (125), ez *por cierto* (126), ez *solo* (115).

Hiztegiari dagokionez, erligio gaiaren eskariz sartu dira hauek: *honra* (88), *sentencia terrible cura* (92), *cadaver* edo *corpuz* (102), *juicio particular* (104), *juicio universal* (118), bere *tronotic* (104), *roboac* (116), *viviente* *guciac* (107), *voza* eta *sonidoa* (111), *odio* ta *rencoreac* (116), *doctrina gaisto* eta *perversoac* (135), eta abar *caminante* (1).

Besteric gabe emango dugu hitzez-hitz predikuaren testua.

Sermon para el 1. domingo de adviento

*Erunt signa in sole et luna, et stellis et
in terris presura gentium*

Luc. c. 27.

Ez duçu ignoratcen duenic, guizona mundu contan dagoño dela caminante bat zoinac batere baratu gabe laster eguiten baitu ilceala arguituz gueroz ilundu artio, eta ilunduz gueroz arguitu artio. Guizonaren vicia, erranten ditcu Salomonec, dela cain veloz nola postaco correoa, *tamquam nuntius presurrens* cain zaluic nola urçu velocidadearequin aitcea evaquicenduen. *Tamquam avis quae circumvolat in aere*, eta cer finetaco eguiten du guizonac cainbertce laister? Nora juaten zra becataria? *quo vadis?* galdeguiten çiacocien marineroec Profeta Jonasi zoalaric ihetsi desobedecituz Jangoicoaren mandatuéc, nora juaten zra bacatari (sic) desobediente Jangoicoaren preceptuen contra?¹⁰ nora zoaza demonioaren esclavao? Badaquizu nora? adizazu: hilceala. Badaquizu nora? Juicioala. Baya nola baitira bi juicio; bat particular zoin eguiten baita arima corpuetic separacen denean, eta bertce universal zoin eguinen baita munduaren azquenean, juzgatu ditzut dela convenienteago chardoquitcea nore discurso breve contan juicio universalaz, zoin erauguicen baitaucu memorioala egungo Evangelio sanduac: baia acerturequin eguitecoz bearditçut gracia divinoaren auxilioac, galdizagun bada guciec humildadearequin emandroquenari M. SSmaren. intercesioneaz salutacen dugularic, devocioarequin Ainguiruaren izez *Ave Maria*²⁰

Profeta Jeremiasec erraten ditçu Jangoicoac emanzacola voza bat manatuz mira eguinzezala, bereala Profetac goratu cituen beguiac eta icutsi vara amenazacen cuen bat; berriz Jangoicoac manatcen ditçu Profetari mira eguin deçala, Profetac goratçen ditçu beguiac eta icusten suzco berz bat: lehenic mostratcen ditçu Jangoicoac amenazara ecic castigoa. Nahi citçun sumergitu mundoa dilubioz, baia lehenic manatu citçun, Patriarcha Noeri eguin cezala arca bat, zoinaren eguitean igari cinzan ehun urte, manatuz erran zazeela galdeguiten çacocien guciec cer finetaco fabricacen cuen arca hura, cela Jangoicoac castigo egorri bear cuenetic libratceco.³⁰ Cala bada disponenten duenean abrasatcea mundu guzia suzco diluvioaz izanen ditzu señaleac; eta riguroso izan bear badu castigoac, riguroso izanen ditzu señaleac. Evangelistac erran zitzun lehenic capitulo contan izanen zere-la juicio universal beño lehenago guerla, peste, eta gose; horay erraten ditzu izanen direla señaleac iguzquian, hilarguian eta izarretan, iguzquia ilunduren dela, ilarguiac eta izar guciec galduren diela beren arguitarzuna. Sn. Lucasec erraten dizu munduco guizonac icusten dielatic señale coec, eta aditcen ichasoco arroitcu terrible curac ibilien diela trastornatric jaquin gabetric cer eguin.⁴⁰ Bi Evangelista coec coin baidira (S. Marcos, eta S. Lucas) añadicen dicie, ceruco virtuteac, zoin baitra Ainguiruac alteratren diela, eta infunditren espantu handi bat Munduco habitanteer: familietaco nausi batec errecebitu duenan zomait disgustu vere sirvienteen ganic nai duelatic gastigatu, deitcen ditzu vere esclavaoac eta manatcen

disponi dezaiela grilloac eta bertce casticoac: gauza coen vistan, lotsacen ditzu familiaco semeac, eta ez ditzu atrevitcen veren aitaren alcinean presentatcea. Guisa verean Jangoico gure Jaunac errecibitu ondorean cain bertze agravio lurecco habitante ingratoen ganic, nai ditzu gaztigatu, eta contaco deitcen ditzu vere esclavoac, zoin baitra ifernuco demonioac, eta manatcen prepara dezaiela seculaco ifernuco calaboac; ⁵⁰ gauza coen vistan vere semeac, zoin baitra Ainguiruac, eta ceruan dauden arima justo guciac guelditren ditzu icara eta pabore handi batez betric vere Presencia divinoan. Becatariac, ez ceradie icarazten (sic) gauza coec guziac aditu ondorean? ez daquicie hil bear ciela? ez daquicie sortu grela mundu nearrezco contan hilcecoz? ez duzu gauza cau beño ciertoagoric: bien bada; nai bacie conservatu çuen concienciaren garbitarzuna eta evitatu becatu guciac eta especialqui becatu mortalac, zoinec causatcen diacocie Jangoicoari agravio infinito bat, edoquicacie presente ellegatren dela egun bat eta fite zointan guelditren ceradie ohatcean, eta instantetic instanteala galdren ciela corpuzac dituen indarrac: ⁶⁰ contan doctoreac manatcen citie confesa citiela, ceren baiceradie hilceco punduan. Alde batetariac çuen ascaciec sofocatcen citie utz dezazquiciela ontarzunac, bertce aldetic icusten cie munduco gusto guciac acabatcen drela çuendaco, iguzquiac, hilarguiac, eta ceruco izarrec ez diela prestatren gueiago arguiaric çuendaco, eta iz batean ez dela bertce remedioric çuendaco baicic hilcea. Eguiazqui, cristio maiteac, edoquicen ditugularic gauza coc guciac estampatric gure memorian imposible duzu cometi zagun pecatu mortal bat. Adicacie bada caso bat nic erran ditudan gauza coc guciac gueldi diten hobequi grabatric gure memorian Siriaco Auctor batec (zoin deizen baita Jacobo Emiseno) erraten ditzu munduan zagon debran (sic) zaquiela tradicioncz bere Provinciaco Elicetan,⁷⁰ Noec arcan sartu cen tembran dilubio universaletic libratceco, desenterratu cuela Adanen corputza zoin erdeten baicen Ebronon, S. Jeronimoc erraten duena bezala, eta eraman verequin eta guero egorri cituenan vere semeac munduaren poblacera repartitu zautela Adanen hezurrac, eta vere seme maitenari (zoin deitcen baita Sem) tocatu cizaiola Adanen calaberara zoin erman çuen eta utzi sepulatric J.C.S.J.ren curucea fijatric izan cen lecu berean. Eta cer finetaco Noec erepartitu zautzen vere semeer Adanen hezurrac? Patriarca handi harc eguin cuen cau, vere semeac orhoicitengatic hilceaz hezurrac vereenequin erematearequin, eta evita ceçaiela becatuac.⁸⁰ Bigarren causa edo motivo importante dena evitaceco becatu mortal guciac duzu juicioaren memoriara: ssaquinzacie bada, cristio maiteac, momento terrible cartan galdeguin bear daucula contu ersibat hil eta vizien Juezac zoin baita J.C. gure Jauna, erranez; eman dartzacie contu zuen iz, obra eta pensamendu guziez. Nai badugu bada ordu terrible cartan gueldiditen secretuan gure obra, iz eta pensamenduac, ellegaguiten gure confesorearen oñetara, eta confesa ditzagun confianza andi andiarequin gure becatu guziac. Eguiten dugua cala? zomat ez dra por desgracia egon ondorean beren adisquequin murmuratcen proximoaz eta quenduz bere honra eta famara ellegatcen direnac confesonarioala eta erraten ez diela murmuratu, ezetare quendu honra eta famara proximo lagunari?⁹⁰ Zomat ez daude orziric mila iz eta pensamentu deshonestoetan eta (ez)

baitie casoric eguiten coitaz acusatzeaz? Coen guzien contra pronunciatren ditzu gure Salvadore Divinoac sententia terrible cura: aparta citeye eneganic maradica-tuac Su eternoala. Eta noiz ellegatren da egun cori galdeguinen diadazie acaso convertitu naidien zomaitec? Nic ez diaguszut, errepondatren (sic) diabezut, eta solo erranen diabezut J. C. gure Jaunac anunciatu zuela. Escritura sagratuan izanen zirela aniz señaie egun cura beño leen, eta señaie eta gatzigu cuec icusten ditzugu urrancen direla momentohoro; eta cer? bear dugua esperatu azquen orduala converticeco? Eta, norc daqui noiz ellegaturen den vicico azquen ordua?¹⁰⁰ bada cer, daucagua acaso vicia erosiric? Acaso elqui baguetaric egun eliza contaric gueldituren duzu gutaric norbait cadaver edo corpuz. Artículo fedezcoa duzu guciec hil bear dugula, eta ez daquigula noiz; Artículo fedezcoa duzu izan bear duela juicio particular batec, eta bertzebat universal hil eta vici gutziendaco. Artículo fedezcoa duzu Jesu-Cristo jaunsiendela bere tronotic hil eta vicien juzgatzera, eta jaunsiendela leenic su terrible bat zoinec consumituren baitu viviente guziac eta hil ondorean resucitatren ditzu istante batez juzgaturic izateco. Su conec consumitren ditzu lurra eta elemento guciac berriric erreformatceco, S. Pedroc erraten duena bezala, eta guizon guciac eta specialqui reprobatic direnac,¹¹⁰ guelditren ditzu trastornatic aditcen dienean trompetaren voza eta sonidoa, eta icaratren icustez juez justo caren beitate terriblea. Can galdeguinen diacuçu condu Juez divino harc guc eguin ditugun munduan vici izan guinuen tembran obra on eta gaistoez. Can juzgatren ditzu Juez justo harc ez solo infidelidadeac, heregiac, engañoac, juramentu falsoac, lujuriazco becatuac, roboac, guezurrac, murmuracioac, odio eta rencoreac, baicic ere munduari iduri cizaion obra onac, baia gaistoac crela realidadeaz. Ez duzu dudaric, Catolico maiteac, ordu cura izanen dela munduan igari cirenetaric terriblena.¹²⁰ S. Geronimoc erraten ditzu iduri cizaiola trompetac sonu eguiten zuela vere bearrietan, eta juaten cela guzgaric izatra, orhoitcen cenean aldi gucietan egun cartaz eta zuelaric Sandu handi conec cain beldur handia momento cartaz, guc grelaric cain gaisto eta relajatric ez dugua beldurric izanen juicio universalaz? Uste ducie por ventura interceditren diela gure gatic ceruco Sanduec egun cartan? Ez por cierto, equivocatric zaurdie: ceren cala nola articulo fedezcoa baita M. Ssmac eta ceruco Sanduec interceditcen diela gure gatic mundu contan gaudeño, guisa verean gauza cierto duzu ez diela interceditren juicio universalaco egunean erreprobatic daudenen gatic;¹³⁰ eia vada orohi guiten juicio universalaz, Catolico maiteac, nai ez badugu izan condenatric daudenen suerte triste hura; velli⁴ guiten, eta eguin zagun penitencia verdadera gure becatu guziez. O Jesus divinoa! ez zula permeti ene comenduan daudenetaric icas dezala ihorc ere egungo egunean munduan curritcen diren doctrina gaisto eta perversoac, iz ematen dauzugu guciec Jauna, nai dugula obserbatu zure graciarequin bateo zure elegue sanduco manamenduac gure vicico azquen momentoalaño, bai ene Salvadore divinoa, iz dauzut ene feligres gucien partez, herri contacto familietaco aita eta ama, nausi eta eheco andre guciec naidiela educatu veren humeac et servizariac zure beldur sanduan, eta seme alava eta servizari guciec naidiela izan humilde eta obediente veren aita eta ama nausi eta

echeco andrendaco:¹⁴⁰ egoz guiten gucioc bada, Jaun divino conen oñetra eta galdin daçogun izan zala compasioa gu becatari miserablez gure vicico azquen momento terriblean, galdin zacogun humildadearequin barcamendua gure becatu guciez, erranez: J.Cto. G. Jna. Jangoico eta guizon egiazcoa, gure Creadore eta redentorea, dizut pesare eta dolore handi bat zure Magestade divinoaren ofendituaz honesten zitut Jauna nore vihotz guciatz, gauza guciac beño gueiago ceren baizrade infinitoqui on eta perfectoa; misericordia Jauna, misericordia eta gracia, zoin baita gloriaren prenda seguroa Amen.¹⁵⁰

- ABRASA(TU). *Abrasatcea mundu guzia suzco diluvioaz* (31)
- ACABA(TU). *Icusten cie munduco gusto guciac acabatcen* (63)
- ACASO. *Daucagua acaso vicia erosiric?* (101) (95) *acaso elqui baguetaric egun eliza contaric* (101)
- ACERTU. *Baia acerturequin* (17)
- ADI(TU). *Adiçacie bada caso bat* (67)
- AINGUIRU. *Ainguiruaren izez Ave Maria* (20) *zoin baitra Ainguiruac* (51)
- AITCEA. *Aitcea evaquicenduena* (6)
- ALCINEAN. *Veren aitaren alcinean* (47)
- ANIZ. *Izanen zirela aniz señaile* (97)
- APARTA. *Aparta citeye eneganic* (93)
- ARCA. *Cer finetaco fabricacen cuen arca hura* (30)
- ARGUI(TU). *Arguituz gueroz* (3) *arguitu artio* (3)
- ARGUI. *Eta ceruco izarrec ez diela prestatren gueiago arguiaric çuendaco* (64)
- ARGUITARZUN. *Galduren diela beren arguitarzuna* (38)
- ARIMA. *Arima corpucetic separacen denean* (13) *cernuan dauden arima justo guciac* (51)
- ARROITU. *Ichasoco arroitu terrible curac* (40)
- ARTICULO. *Articulo fedezcoa duzu* (103)
- ARTIO. *Ilundu artio* (3)
- ASCACI. *Aldebatetaric çuen ascaciec* (62)
- BADA. *Adiçacie bada caso bat* (67)
- BAGUE. *Acaso elqui baguetaric egun eliza contaric* (101)
- BARA(TU). *Zoinac batere baratu gabe* (2)
- BARCAMENDU. *Galdin zacogun humildadearequin barcamendua* (142)
- BATEO. *Zure graciarequin bateo* (135)
- BAÑA. *Baya nola baitira bi juicio* (12); *baia acerturequin* (18)
- BEARRI. *Sonu eguiten zuela vere bearrietan* (121)
- BEAZ. *Suzco beaz bat* (24)
- BEITARTE. *Juez justo caren beitarre terriblea* (112)
- BELDUR. *Cain beldur handia memento cartaz* (123); *ez dugua beldurric izanen?* (124)
- BEÑO. *Beño lehenago guerla* (34); *ez duzu gauza cau beño ciertoagoric* (55); *egun cura beño leen* (96)
- BERRIRIC. *Lurra eta elemento guciac berriric erreformatceco* (109)
- BIEN BADA. *Bien bada* (55)
- CAIN. *Dela cain veloz nola postaco correoa* (5); *dela cain veloz nola urçu velocidadearequin* (6)
- CALABO. *Prepara dezaiela seculacoz ifernuco calaboac* (50)
- CAMINANTE. *Dela caminante bat* (2)
- CASO. *Adiçacie bada caso bat* (67)
- CASTICO. *Grilloac eta bertce casticoac* (46); *riguroso izan bear badu castigoac* (32)

- CAUSA(TU). *Zoinec causatcen diacocie* (49)
- CHARDOQUI. *Dela convenienteago chardoquitcea* (15)
- COMENDU. *Ez zula permeti ene comenduan daudenetatic* (133)
- COMETI. *Imposible da cometi zagun pecatu mortal bat* (67)
- CONFESA(TU). *Doctoreac manatcen citie confesa citiela* (61)
- CONTAN. *Mundu contan dagoño* (1)
- CORPUZA. *Arima corpucetic separacen denean* (13)
- CRISTIO. *Cristio maiteac* (66)
- CURRITU. *Munduan curritcen diren doctrina gaisto* (135)
- DEBRA. *Munduan zagon debran* (69); ikus TEMBRA
- DESOBEDECITU. *Desobedecituz Jangoicoaren mandatuec* (9); *desobediente Jangoicoaren preceptuen contra?* (10)
- DOCTORE. *Doctoreac manatcen citie confesa citiela* (61)
- ECIC. *Amenazara ecic castigoa* (25)
- EDOQUI. *Edoquiçacie presente* (59); *edoquicen ditugularic* (66)
- EGORRI. *Jangoicoac castigo egorri bear cuenetatic libratceco* (30); *gero egorri cituenean vere semeac munduaren poblatzera* (74)
- EGUIA. *Eguiazqui* (65); *eta ceruco izarrac ez diela prestatren gueiago argiaric çuendaco* (64)
- EGUN. *Egungo egunean* (134)
- EIA BADA. *Eia bada orhoiguiten* (130)
- ELEGE. *Zure elege sanduco manamenduac* (136)
- ELLEGA(TU). *Ellegatcen direnac confesonarioala* (89); *ellegaguiten gure confesorearen oñetara* (86); *eta noiz ellegatren da egun cori?* (94)
- ELQUI. *Acaso elqui baguetatic egun eliza contatic* (101)
- ENEGANIC. *Aparta citeye eneganic maradicatuac* (93)
- ERAMAN. *Eraman verequin* (73)
- ERAUGUI. *Zoin eraugutzen baitaucu memoriala egungo Evangelio sanduac* (17)
- ERDEN. *Desenterratu cuela Adanen corputza zoin erdeten baicen Ebronon* (72)
- EREMAN. *Hezurrac vereequin erematearequin* (79); ikus ERAMAN
- EREPARTI(TU). *Eta cer finetaco Noec erepartitu zauzten vere semeer Adanen hezurrac?* (78)
- ERREPONDA(TU). *Nic ez diaguszut errepondatren* (95)
- ERMAN. *Adanen calaberara zoin erman çuen eta utzi sepultatric* (76)
- ERRAN. *Erraten ditcu Salomonec* (4); *erraten ditçu* (21); *erran zazeela galdeguitte çacoién gucier* (29); *nic erran ditudan gauza coc* (67)
- ERRECEBI(TU). *Nausi batec errecebitu duenan* (44); *errecibitu ondorean cambertze agravio* (49)
- ERREPROBA(TU). *Erreprobatric daudenen gatic* (129)
- ERSI. *Galdequin bear daucula contu ersibat* (83)
- ESPECIALQUI. *Eta especialqui becatu mortalac* (59)
- ESTAMPA(TU). *Gauza coc guciac estampatric* (67)

- EVAQUI. *Aitcea evaquincenduen*a (6)
- EZETARE. *Ez diela murmuratu, ezetare quendu honra eta famara* (89)
- FEDE. *Articulo fedezcoa duzu* (103)
- FIN. *Cer finetaco eguiten du* (7); *cer finetaco fabricacen cuen arca* (29); *eta cer finetaco Noec erepartitu zauzten vere semeer Adanen bezurrac?* (78)
- FITE. *Eta fite* (60)
- GALDU. *Galduren diela beren arguitarzuna* (38); *galdeguiten çiacocien* (8); *gal-dizagun bada guciac* (9); *manatuz erran zazeela galdeguiten çacocien gucier* (29); *galdinzacogun humildadearequin barcamendua* (142)
- GANIC. *Vere sirvienteen ganic* (44); *habitante ingratoen ganic* (49)
- GARBITARZUN. *Çuen concienciaren garbitarzuna* (56)
- GAUDEÑO. *Mundu contan gaudeño* (128)
- GAZTIGA(TU). *Nai duelaric gartzigatu* (45); *nai ditzu gartzigatu* (49)
- GAZTIGU. *Señale eta gartzigu cuac icusten ditzugu urrancen* (98)
- GORA(TU). *Profetac goratçen ditçu beguiac* (25)
- GOSE. *Beño lehenago guerla, peste eta gose* (34)
- GRACIA. *Gracia divinoaren auxilioac* (18)
- GRILLO. *Disponi dezaiela grilloac* (46)
- GU. *Gutaric norbait* (102)
- GUCIAC. *Gauza coc guciac* (67)
- GUEIAGO. *Gauza guciac beño guehiago* (148)
- GUELDI(TU). *Gauza coc guciac gueldi diten hobequi grabatric* (67) *gueldituren duzu gutaric norbait cadaver edo corpuz* (102)
- GUERLA. *Beño lehenago guerla* (34)
- GUEROZ. *Arguituz gueroz* (3)
- GUISA. *Guisa berean* (47) (128)
- GUSTO. *Icusten cie munduco gusto guciac acabatcen* (63)
- GUZIA. *Abrastacea mundu guzia suzco diluvioaz* (31)
- HEZURRA. *Adanen bezurrac* (74) (78); *orhoicitengatic hilceaz bezurrac vereequin erematearequin* (79)
- HILARGUI. *Iguzquiac, hilarguiac, eta ceruco izarrac* (63); *Ilarguia* (36)
- HONETSI. *Honesten zitut Jauna nere vihocz guciac* (146)
- IAQUIN. *Nic ez diaguszut, errespondatren diabezut* (95)
- ICARA. *Icara eta pabore handi batez betric* (52)
- ICARA(TU). *Becatariac, ez ceradie icarazten* (sic) (54)
- ICHASO. *Ichasoco arroitu terrible curac* (40)
- ICUTSI. *Icutsi vara amenazacen cuen bat* (23)
- IFERNU. *Zoin baitra ifernuco demonioac* (49); *ifernuco calaboac* (50)
- IGARI. *Igari cinzan ehun urte* (28); *munduan igari cirenataric terriblena* (119)
- IGNORA(TU). *Ez duçu ignoratzen duenic* (1)
- IGUZQUI. *Izanen direla señaleac iguzquian* (35); *iguzquia ilunduren dela* (36) (63)
- IHETSI. *Zoalaric ihetsi* (9)

- IHORC. *Icas dezala ihorc ere* (134)
- ILUNDU. *Iguzquia ilunduren dela* (36)
- INFINITO. *Agravio infinito bat* (59)
- ISTANTE. *Resucitatren ditzu istante (sic) batez* (106); *instantetic instanteala* (60)
- IZ. *Iz batean* (64)
- IZAR. *Eta ceruco izarrec ez diela prestatren gueiago arguiaric çuendaco* (64)
- JANGOICO. *Guisa berean Jangoico gure Jaunac* (48); *Jangoicoari* (59)
- JAUNSI. *Jesu-Cristo jaunsiendela bere tronotic* (104); *eta jaunsiendela leenic su terrible bat* (106)
- JUAN. *Nora juaten zra* (8)
- LAISTER. *Cainbertze laister* (7)
- LASTER. *Laster eguiten baitu* (2)
- LECU. *Lecu berean* (77)
- LEHENIC. *Baia lehenic manatu citçun* (26)
- MANA(TU). *Eta manatcen disponi dezaiela grilloac* (46); *eta manatcen prepara dezaiela* (49); *manatuz mira eguinzezala* (22); *manatcen ditçu* (23); *manatu citçun* (26) (27)
- MANDATU. *Desobedecituz Jangoicoaren mandatuec* (9); ikus PRECEPTU
- MARADICATU. *Aparta citeye eneganic maradicatuac* (93)
- MARINERO. *Galdeguiten çiacocien marineroc* (8)
- MIRA. *Manatuz mira eguinzezala* (22); *mira eguin deçala* (24)
- MOMENTO. *Cain beldur handia momento cartaz* (123); *gure vicico azquen momentoalaño* (136); *momentohoro* (99)
- MORTALA. *Eta especialqui becatu mortalac* (59)
- MOSTRA(TU). *Mostratcen ditçu* (26)
- MUNDU. *Abrasatcea mundu guzia* (31); *nahi citçun sumergitu mundoa dilubioz* (26)
- NAUSI. *Nausi batec errecebitu duenan* (44); *nausi eta echecho andrendaco* (139)
- NEAR. *Mundu nearrezco contan* (54)
- NORE. *Nore discurso breve contan* (15)
- OHATCE. *Zointan guelditren ceradie ohatcean* (60)
- ONTARZUN. *Utz dezaizquiciela ontarzunac* (62)
- OÑ. *Egon guiten gucioc bada Jaun divino conen oñetra* (141)
- ORHOI(TU). *Orhoicengatic hilceaz* (79); *orhoitcen cenean* (122)
- ORZI. *Zomat ez daude orziric* (91)
- PABORE. *Icara eta pabore handi batez betric* (52)
- PERMETI. *Ez zula permeti* (133)
- PESARE. *Dizut pesare eta dolore handi bat* (144)
- PESTE. *Beño lehengo guerla, peste, eta gose* (34)
- POSTA. *Postaco correa* (5)
- PRECEPTU. *Jangoicoaren preceptuen contra?* (10); ikus MANDATU
- PRESENTE. *Edoquiçacie presente* (59)

- PRESTA(TU). *Eta ceruco izarrec ez diela prestatren gueiago arguiaric çuendaco* (64)
- PUNDU. *Hilceco punduan* (61)
- REMEDIU. *Eta iz batean ez dela bertce remedioric çuendaco* (65)
- REPARTI(TU). *Repartitu zauztela Adanen bezurrac* (75); ikus EREPARTI
- REPROBA(TU). *Guizon guciac eta specialqui reprobatic direnac* (109); ikus ERREPROBA(TU)
- RIGUROSO. *Eta riguroso izan bear badu castigoac, riguroso izanen ditzu seña-leac* (33)
- SEÑALE. *Izanen zirela aniz señaile* (97)
- SONU. *Iduri cizaiola trompetac sonu eguiten zuela* (122)
- SPECIALQUI. *Specialqui reprobatic direnac* (109)
- SSAQUIN. *Ssaquinzacie bada* (81)
- SU. *Suzco beaz bat* (24); *abrasatcea mundu guzia suzco diluivioaz* (31); *su eter-noala* (94)
- SUMERGI(TU). *Nahi citçun sumergitu mundoa dilubioaz* (25)
- TEMBRA. *Munduan vici izan guinuen tembran* (104); ikus DENBRA
- URRAN(DU). *Señaile eta gatzigu cuec icusten ditzugu urrancen* (99)
- UTZ. *Utz dezaizquiciela ontarzunac* (62)
- VELLI. *Velli guiten, eta eguin zagun penitencia* (132)
- VELOZ. *Cain veloz nola postaco correoa* (5)
- VISTA. *Gauza coen vistan* (46) (51)
- VOZA. *Jangoicoac emanzacola voza bat* (21); *trompetaren voza* (111)
- ZALUIA. *Cain zaluia nola urçu velocidadearequin aitcea evaquicenduena* (6)
- ZOIN. *Zoinac batere baratu gabe* (2); *zoin eguiten baita* (13); *zoinec causa-tcen diacocie Jangoicoari* (59)
- ZOMAT. *Zomat ez daude orziric* (91); *zomat ez dra por desgracia egon...* (88); *errecebitu duenan zomait disgutu* (44); *converti naidien zomait* (95)

¹³² Velli hitzaren esanahiaz, 1911an Otsagiko Ziriako Garralda zenak idatzitako azalpena, honako hau da:

— «Baña, zer da Esnalea?. Esnalea... Esnalea. Itz ori estut ongi aytzen.

— Esnalea duzu orobat nola *bellitzea* emen... Badakizu guk uste gaberik agi naydizie Euskal eginzalek belligiten guaren lotik eta eginzagun alguzia eztadien gal gure sardokitze edo mintzu maitea». (AGN. Fondo Campión, carpeta Z Y).